Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miguel Angel Elkoroberezibar Larrañaga

Bergara, Gipuzkoa (1966)



Aurkibidea

Biografia



Idazlea eta ikerlaria. Aita Zubikoa baserrian jaioa zen eta ama Harruriaga kalean; Frontoiko etxeetan bizi ziren. Miguel Angelek Koldo Eleizalde ikastolan eta Aranzadi ikastolan egin zituen ikasketak, eta Serafin Esnaola apaiz euskaltzalearekin harreman handia izan zuen. Hari buruzko liburua idatzi zuen, eta elkarrizketa honetan hainbat kontu kontatzen ditu. Maripaz Alustizarekin ere ibili zen, pintura ikasten, eta Bergarako arte mugimendua ere ondo ezagutzen du. Ingeles Filologia ikasi zuen, Bilbon, eta literatur aldizkari bat ere sortu zuen (Enseiucarrean); literatur aldizkariak ere aztertu ditu. 'Berrigara' herri aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen. Domingo Mtz de Irala konkistatzaile bergararraren bizitza ere ikertu du.

Zintak

BER-358

- **Proiektua**: Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2021-03-30
- **Iraupena**: 114 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Ikastola sortu berrian ikasle

- **Erref**: BER-358/003
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:01:06. **Bukatu**: 00:03:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Koldo Elizalde ikastolan ibili zen txikitatik. Maite Agirrebeña eta Pilare Mujika

gogoratzen ditu. Lurrean eserita egoten ziren eta jolasean. Urretxun matrikulatuta zeuden. Guardia Zibila etortzen zenean, katekesian zeudela esaten zien Don Serafinek. 1971n Telesforo Aranzadi sortu zen.

2. Ikastolaren sorrera

- **Erref**: BER-358/004
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:03:48. **Bukatu**: 00:05:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Gurasoen artean batzarrak egin zituzten, baimenak eskuratzen aritu ziren eta Don Serafinekin eta beste apaizekin hitz eginda hasi ziren ikastolako lehenengo taldeak.

3. Serafin Esnaolak Trintxerpen arrastoa laga zuen

- **Erref**: BER-358/005
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:05:12. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Serafin Esnaola apaiza Trintxerpetik zigortuta desterratu zuten Bergarako San Antonio ermitara. Abertzale sutsua zen, giza eskubideen alde borroka egiten zuena. Trintxerpen mugimendu sozial handia sortzen lagundu zuenez, elizako goi-karguei gustatu ez eta ez zuten parroko izendatu. Trintxerpetarrek boikota egin zioten parroko berriari eta zalaparta handia sortu zen. Herritarrei zigorra ezarri zieten. 1964a zen.

4. Don Serafin, EAJkoen aholkulari ezkutua

- **Erref**: BER-358/006
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:11:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Don Serafin Trintxerpen egindako lan bera egiten hasi zen Bergaran. 1964an etorri zen Bergarara eta erretiroa hartu arte geratu zen. EAJko kapilaua zen eta alderdiko aholkularia. Itzalean egon arren, politikan eragin handia izan zuen. Francoren kontrako idazkia egin zuten berak bultzatuta.

5. Abadetxea kultugune eta gazte lokal

- **Erref**: BER-358/007

- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:11:06. **Bukatu**: 00:14:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Abadetxean kultur mugimenduko sektore asko zeuden: Ernai antzerki taldea, Urretxindorrak (izena bera ere Don Serafinek proposatutakoa izan zen), Pol-poleko kideak eta laborategiak, ikastola, Hamar abeslariak taldea... Euskaraz egiteko lekua zen. Lokaleko giltza utzi zien gazteei.

6. Serafin Esnaolarengan eragina izan zuten pertsonak

- **Erref**: BER-358/008
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:14:08. **Bukatu**: 00:17:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Don Serafin izatez errezildarra zen, umetan Ormaiztegira bizi izatera joandakoa. Frantzisko Etxeberria apaizak sortutako antzerki taldean ibili zen. Euskal kulturarekiko ikusmira sortu zien, kultur arloan jantzia zelako. Gasteizko seminarioan, Joxe Miel Barandiaran irakasle izan zuen Serafinek. Seminario berrira pasatu zenean, euskara irakasle Manuel Lekuona izan zuen. "Aurrera beti" aldizkaria sortu zuten; Arizmendiarrieta eta beste hainbat aipatzen ditu.

7. Serafin Esnaolak euskarari buruz idatzitakoa

- **Erref**: BER-358/010
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:18:21. **Bukatu**: 00:20:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Gaztetan Gasteizko seminarioan Serafin Esnaolak euskarari buruz "Aurrera beti" aldizkarian idatzitakoa irakurtzen du, 1932 ingurukoa.

8. Serafin Esnaola, argazkilaritzan eta zinemagintzan zaletua

- **Erref**: BER-358/011
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:20:49. **Bukatu**: 00:22:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
50. eta 60. hamarkadan ere hainbat aldizkaritan parte hartu zuen Don Serafinek. Trintxerpen egin zuen moduan, Bergaran ere irudiak garrantzi handia hartu zuen, argazkilaritza eta zinemagintzarekin. Aparaturik modernoenak eta onenak ekartzen zituen.

9. Serafin Esnaolaren pelikulak

- **Erref**: BER-358/012
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:22:44. **Bukatu**: 00:25:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Don Serafinek grabatutako pelikulak ikustera jende asko batzen zen. Euskal musika ipintzen zien eta ikusten zena azaltzen zuen. Kirolzale amorratua zen eta kirol partidak eta probak filmatzen zituen. Herritarren bizimoduaren testigantza jaso nahi izaten zuen.

10. Serafin Esnaola itzaletan

- **Erref**: BER-358/013
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:25:29. **Bukatu**: 00:26:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Euskal Herriko historiako momentu oso garrantzitsuak filmatu zituen Don Serafinek. Bigarren mailan geratzen zen beti, eta horrek bere ekintzailetzaren dimentsioa ezezaguna izatea eragin du.

11. Serafin Esnaolari trintxerpearrek azaldutako esker ona

- **Erref**: BER-358/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:27:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
1964an Don Serafin Bergarara etorri zenean, hamaika autobus eta berrogeita hamabi auto etorri ziren Trintxerpetik bere lehen meza entzutera, gogoan zeukatela adierazteko. Trintxerpekoek "Dos caballos" kotxea oparitu zioten, herrira bueltatu ahal izan zedin.

12. Serafin Esnaolak antolatutako umeentzako udalekuak eta mendi taldea

- **Erref**: BER-358/015
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:27:30. **Bukatu**: 00:30:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
1968 inguruan Kultur Ekintzakoekin, umeentzako udaleku antzekoak antolatu zituen Don Serafinek. Filmatu egin zuen dena Serafinek. Pol-poleko estatutuak aztertu zituen eta umeentzat atal bat sortu zuen. Arrakasta handia izan zuen.

13. Don Serafinentzat, umeak izaki autonomo eta arduratsuak dira

- **Erref**: BER-358/016
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:30:39. **Bukatu**: 00:34:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Don Serafinek umeak autonomo eta arduratsu izan zitezkeela uste zuen. Hamabost urterekin edozein irteera antolatzeko ardura guztia hartzen zuten; filmak eskatzeko enbaxadetara idazten zuten. Mendizaletasuna bultzatzearekin batera, kulturak eta euskarak leku handia zeukaten. Argazkigintzarenak ere hortxe du jatorria.

14. Serafin Esnaolaren eragina herritarrengan

- **Erref**: BER-358/017
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:34:13. **Bukatu**: 00:35:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Kultura eta herria ulertzeko moduan, jende askorengan eragina izan zuen Serafinek. Euskarari ere beti lekua ematen zion.

15. Serafin Esnaolak arteari bultzada

- **Erref**: BER-358/018
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:35:36. **Bukatu**: 00:36:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Artea ere bultzatzen zuen Serafinek: pintura eta marrazketa lehiaketak, jaiotzak egitea... Gazteak esna egon eta sortzaile izan zitezen bultzatu zuen.

16. Bergaran zaletasun handia marrazketa eta pinturarekiko

- **Erref**: BER-358/021
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:39:45. **Bukatu**: 00:43:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:
Mugimendu handia zegoen marrazketa eta pinturarekin. Aspaldiko tradizioa dela azaltzen du. Artearen ikaskuntza eta irakaskuntza prozesua azaltzen ditu. Mari Paz Alustizarekin jende askok ikasi zuen.

17. Bergaran artearekiko sentikortasunaren transmisioa

- **Erref**: BER-358/022
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:43:07. **Bukatu**: 00:46:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:
Bergaran artearekiko sentikortasuna eta pinturarekiko gustua belaunaldien artean transmititu dela azaltzen du, batak besteengandik ikasiz. Aire libreko lehiaketetara joaten ziren, batera eta bestera. Margolari asko sortu izan da Bergaran eta kultura baten parte da besteekin hainbeste partekatzearena.

18. Beart elkartearen lana

- **Erref**: BER-358/023
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:46:57. **Bukatu**: 00:48:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:
Garai batean inguruko margolariak Bergarara etortzen ziren, beste margolari batzuengandik ikasteko. Beart lan handia egiten ari dela dio, tradizioa mantenduz eta ildo berriei leku eginez.

19. Pintura obrak erakusgai

- **Erref**: BER-358/024
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:48:32. **Bukatu**: 00:50:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:
70. hamarkadan arte galeria zabaldu zen, erakusketak antolatzen hasi ziren eta tabernetan ere obrak jartzen hasi ziren paretetan. Hutsik dauden dendetan eta lokaletan koadroak daude jarrita.

20. Lorenzo Askasibar eskultoreaz

- **Erref**: BER-358/025
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:50:35. **Bukatu**: 00:52:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:
Bergarako margolariengan kolore eta estilo batzuk badaudela dio, baita orain muralistak eta grafitigileak ere. Lorenzo Askasibar eskultoreari buruzko liburua argitaratuko duela dio. Lorenzoren ibilbidea kontatzen du.

21. Simon Arrieta margolariari buruz

- **Erref**: BER-358/026
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:52:58. **Bukatu**: 00:55:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
Simon Arrietak Zuloagaren obraren eragin handia izan zuen. Madrilen punta-puntan jarri zuten, baina ito egin zen. Herrimin handia sortu zitzaion eta Bergarara bueltatu zen.

22. Aranzadi ikastolan egindako urteez

- **Erref**: BER-358/029
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 01:00:09. **Bukatu**: 01:02:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
<p>Aranzadi ikastolako lehenengo urteetatik gogoratzen duena da lurrean bueltaka ibiltzetik gela bat izatera pasatu zirela. Maria Biktoria eta Lide Oregi

(Lide Mujika zen, ez Oregi) ditu gogoan. Juan Martin Elexpuruk euskara eta literatura erakusten zizkien. Pasilloetan laborategiko tresnak eta animalia disekatuak egoten ziren.</p>

23. Ikurriña legeztatu zuten eguna

- **Erref**: BER-358/030
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 01:02:29. **Bukatu**: 01:05:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Ikurriña legeztatu zen eguna herriarentzat garrantzitsua izan zen. Zela bizi izan zuen kontatzen du. Serafin Esnaolak grabatu egin zuen.

24. Umeentzat kultura eskura

- **Erref**: BER-358/031
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 01:05:13. **Bukatu**: 01:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Dantza eskoletatik ume asko pasatu ziren. Haurren egunetan parte hartu izan zuen. Gutxi iraun zuen dantzan. Umeentzat kultur ikasketetarako aukera handia zegoen; protagonista izateko zein kontsumitzeko aukera zegoen.

25. UNEDeko euskara departamendua

- **Erref**: BER-358/032
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 01:08:35. **Bukatu**: 01:12:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
UNEDeko euskara departamenduko hainbat Aranzadin edo institutuan irakasle izan zituzten. D maila egitera joan ziren, gaztetxoak izan arren. Larunbatetan giro handia sortzen zen. Dispertsatuta zegoen kultura ordenatzeko lekua zela dio. Larunbatez gain, astebarruan ere mugimendu handia sortzen zen UNEDen.

26. Gizarte eta kultur mugimenduak epeltzen

- **Erref**: BER-358/033
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 01:12:16. **Bukatu**: 01:14:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Arkupeetan kanikekin aritzen ziren eta Seminarixoko futbol zelaian ere bai jolasean. Belaunaldi eta zaletasun askotarako lekuak eta aukerak zeudela gogoratzen du. Erakundeak sortu eta zerbitzuak sortu zirenean, kultura formalago bat sortzeak giroa epeltzea eragin zuen.

27. Irekidura kulturan

- **Erref**: BER-358/036
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 01:16:00. **Bukatu**: 01:18:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Artea eta errebindikazioa batera egiten ziren frankismoaren azken urteetan. Kanpoan zer zegoen ikusten hasi ziren eta kanpoko eragina nabarmentzen hasi zen. Irekiduraren ondorioz, herrikoari lekua ematen hasi ziren pixkanaka.

28. Berrigara eta Jardunen sorrera

- **Erref**: BER-358/037
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 01:18:12. **Bukatu**: 01:20:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Tokiko komunikabideen eta euskara elkarteen sorreraz hitz egiten du. Arrasateko eskola politeknikoan lan egiten zuen garaian, Arrasate Pressekoekin harremanetan jarri zen eta halaxe sortu zen Berrigara.

29. Euskara elkarteen eta tokiko komunikabideen profesionalizazioa

- **Erref**: BER-358/038
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 01:20:16. **Bukatu**: 01:24:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Norbere erroak eta herria galtzen joaten dira, kanpokoaren eragina handia denean. Euskara elkarteetan eta tokiko komunikabideetan profesionalizazioa ematen hasi zen, egindakoa kalitatezkoa izan zedin.

30. Txapa irratian eta "Enseiucarrean" aldizkariaren sorreran

- **Erref**: BER-358/039
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 01:24:29. **Bukatu**: 01:28:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Institutu garaian, fanzineak eta irrati libreak abiatu zituzten. Orduan sortu zuten Txapa irratia, 1985 inguruan. Bilbon unibertsitatean literatura aldizkaria sortu zuten, "Enseiucarrean" izenekoa. Aldizkariak bilgune eta adierazpen gune moduan ulertzen ditu. Euskarazko literatur aldizkarien bilduma egina du.

31. Literatur aldizkarien inguruko mugimenduak

- **Erref**: BER-358/040
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 01:28:31. **Bukatu**: 01:30:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:
Literatur aldizkarietako lan-taldeetatik beste adar batzuk sortzen dira. Hor sortzen diren mugimenduak aztertzeak gizartea ulertzen laguntzen du.

32. Literatura eta kazetaritza, idazleen zeregin

- **Erref**: BER-358/041
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 01:30:32. **Bukatu**: 01:34:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Idazteko gaitasuna zutenak kazetaritzak hartzen zituen sarri. Aldizkarietan literaturaren eta kazetaritzaren arteko nahasketak sortzen ziren. Euskal literatur aldizkariek literaturari ekarpen handia egin diotela dio.

33. Literatur aldizkarien historia jasota

- **Erref**: BER-358/042
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 01:34:40. **Bukatu**: 01:36:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
80. hamarkadan, Joan Mari Torrealdaik eskatuta, Jakinerako lan bat prestatu

zuen, "Literaturgintzarako plataforma" izenekoa; literatura aldizkarien fenomenoa aztertu zuen. "Xubi.eus" webgunean hogeita bost aldizkariri buruzko historia laburrak jaso ditu.

34. Domingo de Iralaren garaiko Bergara aztergai

- **Erref**: BER-358/044
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 01:39:21. **Bukatu**: 01:43:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
XVI. mendeko lehen herenean murgiltzea izan zuen erronka, Domingo de Iralaren bizimodua aztertzeko. Orduko Bergara irudikatu behar izan zuen: arkitektura, ibaiak, dolareak eta laborantza, arropak... aztertuta. Liburu bat prestatu zuen eta Paraguain aurkeztu.

35. Domingo de Iralaren bizimodua

- **Erref**: BER-358/045
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 01:43:00. **Bukatu**: 01:46:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Domingo de Iralaren bizimoduari buruzkoak kontatzen ditu.

36. Domingo de Iralaren konkista modua

- **Erref**: BER-358/046
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 01:46:56. **Bukatu**: 01:49:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Domingo de Iralak ezagutu zuen Amerikaren ingurukoak kontatzen ditu. Bere soldaduak emakume guaraniekin ezkondu zituenez, guaraniera hizkuntzaren transmisioak gaur arte iraun duela azaltzen du.

37. Domingo de Iralaren bizimodua II

- **Erref**: BER-358/047
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 01:49:18. **Bukatu**: 01:53:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Domingo de Iralak testamentuan bere seme-alaba asko zein ziren aitortu zuen. Haren bidaia eta konkistari buruzkoak kontatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com